



**'Bi zaldi' Ttakunen hogeita bosgarren urteurrena ospatzeko-** Urriaren lehenean, hogeita bost urte bete zituen Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkarteak eta mende laurdena ospatzeko asmoz, zenbait ekintza antolatu ditu elkarteak. Horien artean, 'Bi Zaldi' musika taldearen kontzertua izan zen larunbat iluntzean herriko Jalgi tabernan. 20:00etareko egin zuten hitzordua tabernan eta minutu gutxi pasata hasi zen musika emanaldia ere. Beñat Antxustegi gitarra jotzaileak eta Gartxot Unsain abeslariak osatutako bikoteak, euskaraz abesturiko bertsioak eskaini zizkieten bertaratutakoiei. Horien guztien artean, 'Mendiatzean', 'Onartzen dut', 'Soja', 'Krambrierries' eta 'Boxeuan' abestiak kantatu zituzten. Baina bertsio horiez gain, bikoteak berak sortutako zenbait abesti ere entzun ahal izan ziren; 'Oroimin', 'Etorkizu' eta gurasoei eskainitako 'Ama/Aita' abestiak. Jende ugari bildu zen Jalgin kontzertuaz gozatzeko asmoz eta izan ziren txaloz laguntzera, abestera zein dantzatzera animatu ziren ikusleak ere. Ttakunek urteurrenaren harira argazki-erakusketa jarri du Jalgin, eta aste osoan zehar izango da oraindik ere ikusgai.

## 2 GIZARTEA

### Errausketa plantaren aurkako ekintzak

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hondakinen Kudeaketa Kontsorzioak Zubietako errausketa plantari buruzko erabaki garrantzitsuak hartu behar dituzte aurki. Hori dela eta, Aire Garbia ekimenak elkarretaratze berezia egin zuen larunbatean Okendo plazan. Bestalde, GuraSOS ekimenak 'Lasarte-Oria +: Osasuna eta adostasuna' mahai ingurua egingo du.

## 3 GIZARTEA

### Egitarau zabala genero indarkeriaz sentsibilizatzeko

Lasarte-Oriako Udalak Emakumeen Zentro Zibiko eta beste eragileekin batera, genero indarkeriaren aurkako astea antolatu du. Gaurtik abenduaren 2ra arte, ekintza ezberdinak antolatu dira eta Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa landu nahi dituzte. Urtean zehar gaia presente izateko ekimen batzuk ere egingo dira.



## 4 MUSIKA

### 'II. Reggae Fever Fest' izango da larunbatean

Bigarren urtez, reggae klasikoa oinarri duen 'Reggae Fever Fest' jaialdia izango da Lasarte-Orian. Arratsaldean djez gozatu ahal da Insausti tabernan. Gauean, ordu txikiak arte, kontzertuak eta dj saioak izango dira Elebeltz topagunean. Reggae zaletuek gozatzeko aukera ederra izango dute.

www.multiopicasgipuzkoa.com



AZAROAK 25-26  
BLACK FRIDAY

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA  
EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

EGUZKITAKO  
BETAURREKOAK

%30  
deskontua  
bilduma guztietan

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

BETAURREKO  
GRADUATUAK

montura  
DOAN  
+ %15eko deskontua lenteetan

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE

MULTIÓPTICAS  
lehen zerbitzu optikoetan

## ERRAUSTEGIA

# Erraustegiaren aurkako ekintzak

## Asteazkenean, GuraSOS ekimenak antolatutako mahai-ingurua izango da

Zubietako erraustegiaren eraikuntzak Lasarte-Oriako herritarren sortzen duen ezinegona nabarmena da. Aurki Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hondakinen Kudeaketa Kontsorzioak erabakiak hartu behar dituzte. Hori dela eta, Aire Garbia plataformak eta GuraSOS elkarteak hainbat ekitaldi antolatu dituzte aste honetan zehar. Larunbatean, erraustegiaren aurkako kontzentrazioa egin zen Okendon.

**Z**ubietan eraiki behar duten erraustegiaren eraikuntza geldiarazteko garaiz gabiltzala adierazteko asmoz, askotariko ekintzak antolatu dira Lasarte-Orian. Larunbatean, Lasarte-Oriako Aire Garbia herri plataformak antolatuta, erraustegiaren aurkako elkarretaratzea egin zen Okendo plazan. Herritarrak lurrean etzan, eta mandiekin zuriak ezarri zituzten, eta kontzentrazio ikusgarria egin zuten.

### Mahai ingurua

Asteazkenean, 18:00etatik aurrera, 'Lasarte-Oria + Osasuna eta adosta-suna' mahai-inguruaz gozatzeko aukera izango da Landaberri BHI.

GuraSOSek gonbidatuta, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako irakasleak, Maite Labiano sendagilea, Domi Insausti erizain ohia eta Juan Luis Murua parrokoa izango dira



Herritarrak lurrean etzanda, ospitaleko mandiekin zuriak izan zitezkeen mandiekin ezarri zituzten elkarretaratzea.

gaiari buruz hizketan.

Aurretik, Iñigo Suberbiola OEITko kideak sarreratxo bat egingo du.

Ekimenaren helburua diziplina eta eremu ezberdinetako pertsonen iritzia entzutea izango da, baita "adostasuna dagoen horretan, batera eta herri

bezala, zer egin daitekeen aztertzea" ere.

### Manifestazioa

Hau guztiaz gain, azaroren 26an, GuraSOSek Donostian egingo duen 'Gipuzkoa + Eman bide osasunari eta adostasunari' manifestazioan parte hartzeko gonbita egingo da.

die herritar guztiei.

Ekitaldia arratsaldeko 17:00etan abiatuko da Amarako parketik eta Donostiako kaleak zeharkatuko ditu erdigunera arte.

Aire Garbiak plataformak ere bat egiten du deialdi honekin.

## 'Etorkizuna eraikiz' eragileekin elkarlanean aritzeko egitasmoa

**E**sperientzia pilotuak martxan jarri, ebaluatu eta, ostera, ondorioak politika publikoetan txertatu. Eskema honi jarraituz landu nahi ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeak etorkizunera begira dituen erronka nagusiak. Hori da, hain zuzen ere, 'Etorkizuna eraikiz' egitasmoan jaso duen estrategia, Gipuzkoako diputatu nagusiak, Markel Olanok, gidatzen duen programa. Ekimenak izaera desberdineko eragileen arteko elkarlana du helburu.

Diputatu nagusia Hernanin izan zen, Buruntzaldeako tokiko eragileei egitasmoaren berri ematen.

Egitasmoa bi zutaberen gainean eraiki da: alde batetik, 'GipuzkoaLab' deritzona, ekonomia, gizarte eta kultura

arlotan esperientzia pilotuak martxan jarriko dituena. Hasiera batetan, lau proiektu nagusitan sakondu nahi da, horietako bi enpresen arloan gauzatuko dira: langileen partaidetza, batetik, eta genero berdintasuna eta kontziliazioa sustatzea, bestetik. Horretarako, hamarna esperientzia pilotu jarriko dira 500 pertsonen partaidetzarekin. Hirugarren proiektua Gizarte politikaren arloan gauzatuko da, adinduen arretarako erreferentziatzeko zentro baten garapena landuz eta hirugarren sektorea bultzatzeko beste lau esperientzia abian jarritz. Laugarren ekimenak euskararen arloa jorratuko du, ikus-entzunezko edukiak sortzeko laborategia sustatuz.

Bigarren ardatza 'Gipuzkoa Taldean' litzateke, gizarte antolatuarekin elkarlanean eta etengabeko elkarriketan oinarrituta, Gipuzkoa 2026 Plan Estrategikoa osatzea helburu duena. Gizarteko hainbat arlotako 60 ordezkari osatzen dute martxan dagoen gogoeta eta gobernantza organo hau.

Diputatu nagusiak gogoratu zuenez, Gipuzkoak lurralde aurreratu, jasangarri eta integratzailea izaterainoko bidea egin du azken bi hamarkadetan, baina krisi ekonomikoak sistemaren indargune eta ahuleziak agerian utzi ditu. Jasotako ekarpenek eta programa honetan identifikatutako aurrerakuntzek indarrean dagoen Kudeaketa Plan Estrategikoa eguneratuko dute.



Olanok aurreko asteko topaketan..

### Hiru zeharkako ardatz


'Etorkizuna eraikiz' egitasmoak beste hiru zeharkako ekimen ditu. Lehen ekimenak, nazioartekotze sareak, proiektua mundura ireki, kontrastea egin eta kanpoko esperientzia aberasgarriekin elikatzea bilatzen du.

Ikerkunek, bere aldetik, lurraldeko ekosistema

akademikoaren aktibazioa du xede, 'Etorkizuna eraikiz' osatzen duten programa ezberdinei babesa eta sostengua emateko. Hirugarren ardatza gizarteratze prozesua da, lurraldearen erronkak eta proiektuaren ondorioak gizartean hedatu, eztabaidatu eta partekatzeko helburua duena.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria

**943 366 858/943 371 448**

G-20407557

#### Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

#### txintxarri

#### Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

**txintxarri@txintxarri.eus**

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.eus**

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odrizola, Maider Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz

## GENERO INDARKERIA

# Genero indarkeriaren aurkako astea

Aste honetan, ekintza ugari antolatu dira sentsibilizazio eta kontzientziazioa lantzeko

**Azaroaren 25ean, Genero indarkeriaren aurkako eguna da. Honen harira Lasarte-Oriako Udalak, Emakumeen Zentro eta beste eragilerekin batera hainbat ekintza antolatu ditu. Aurten sentsi-bilizazioan jarri dute indarra.**



Udal ordezkariak eta teknikariak genero indarkeriaren aurkako astearen aurkezpenean.

TXINTXARRI

**G**enero indarkeriaren aurkako astea aurkeztu zuten Udal ordezkari eta teknikoei ostiralean Emakumeen Zentro Zibikoan.

Jesus Zaballos alkateak nabarmendu zuenez, "genero indarkeria gizarteak orokorrean pairatzen duen gaitza da. Eraildako emakumeen kopurua handitzen doa eta neurriak ez dira nahikoak".

## Sentsibilizazioa

Aurten sentsibilizazio eta kontzientziazioan jarri nahi du indarra Udalak. "Aurreko urteetan ekintza konkretuak egin, baina sentsibilizazioa eta kontzientziazioa landu nahi izan da aurten, bai emakume, baita gizonena ere. Horregatik ekintza parte hartzaileak egitea erabaki da," aipatu zuen alkateak.

Era honetara, esate batera-

ko, elkarretaratzean ekintza sinboliko modura, urtean zehar eraildako emakume bakoitzeko zapata pare gorri bat jarriko da.

Honetaz gain, ekintza soiletan ez geratzeko, urte osoan zehar "herritarrek gaia presente izan dezaten" beste ekimen batzuk egingo dira.

Agerraldian azaldu legez, azaroaren 2tik 15era, Lasarte-Oriako denda eta elkarte ezberdinetan 'Berdintasuna benetako, ez bakarrik esku-bidea' lelodun pegatina banatu da.

Honetaz gain, bularreko minbiziaren aurkako egunean egin legez, Ganbo kaleko banku bat margotuko da morez.

Azkenik, 'Indarkeria STOP' leloa duten motxila moreak banatuko dira ekintzetan

parte hartzen duten pertsonen artean, baita egitaraua edo ekintzak antolatzen lagundu dutenei ere.

## Ekintzak

Gauzak honela, genero indarkeriaren aurkako asteko egitaraua zabala aurkeztu zuten. Honetan "adin guztietara iritsi nahi izan da".

Gaur, Atsobakar Zaharren egoitzan. Emakumeen Zentroko kideek ipuin-kontalari saioa egingo dute bertako egoiliar eta familiei zuzendua.

Bihar, berriz, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean 19:00etatik aurrera, 'Él nunca me pegó' dokumentala eta Irantz Varelaren hitzaldia izango dira.

## Beldur Barik

Asteazkenean, Lasarte-Oriako Beldur Barik lehiaketako sari banaketa egingo da Manuel Lekuona hitzaldi aretoan.

Gazteek emakumeen aurkako indarkeria gaitzetsi eta hauen artean, harreman libre, errespetuzkoa, parekide, dibertso eta ez sexistak sustatzeko asmoa du lehiaketak.

Bi mailatan banatuta, sei taldek osatutako ikus-entzuzko lanak aurkeztu dituzte. Hauek [beldurbarik.org/eu/2016-lanak/](http://beldurbarik.org/eu/2016-lanak/) gunean ikusi daitezke.

Agerraldian, Udal ordezkariak urtero lan kopurua handitzen doala azpimarratu zuten.

Lasarte-Orian kulturaren, hezkuntzaren eta berdintasun politiken alde aritzen diren

pertsonak hauek epaitu eta asteazkenean jakingo da zeintzuk diren sarituak.

Ostegunean, haur liburutegian, Kontu Kantoiko kideek 6 eta 8 urte arteko lagunei gaian oinarritutako ipuinak eskainiko dizkiete.

## Azaroak 25

Genero indarkeriaren egunean, azaroaren 25ean, 11:00etan, Ibilaldi osasuntsua egingo da genero indarkeriaren aurka. 12:00etan, elkarretaratzea izango da, Okendo plazan eta 12:30ean, banku bat margotuko da.

Baina ez dira ekintzak hor amaituko, azaroaren 29an, Iratxe Alvarezek 'Festak gureak dira' hitzaldia eskainiko du.

Eta amaitzeko, aben-duaren 2an, Emakumeen Zentroko Makelur antzerki taldeak, 'Eterna juventud' antzezlanaren taularatuko du.

## Lanketa

Honetaz guztiaz gain, egitaraua osatu eta aurrera eraman ahal izateko herriko talde ezberdinekin lan egin dutela nabarmendu zuten aurkezpenean.

Esate baterako, Gazte-lekuoko gazteekin genero indarkeriaren lana landu dute, "hauek zapatak gorritz margotu dituzte" eta 'Lasarte Morea' ekimeneko proposamenak ere jaso dituzte.

## Pintxo goxoz osatutako ibilbidea

**B**uenetxea, Viña del Mar, Yolanda, Izurde, Arkupe eta Lasarte tabernak, Lavie gastroteka eta Goiegi jatetxea. Horiek izango dira asteburu honetan zehar egingo den pintxo ibilbidearen geldialdiak.

Aterpea herriko merkatarien elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatzen duen ekimenak IV. edizioa du. Ostiralean, larunbatean eta igandean zehar pintxo goxoak dastatu ahalko dituzte herritarrek aipatu establezimendu horietan, bi euroren truke. Antolatzaileek zehaztu dutenez, edaria prezio horretatik aparte geratzen da.

Ordutegiak hauek dira: ostiralean, 19:00etatik 21:00etara; larunbatean, eguerdian zehar eta 19:00etatik 21:00etara; eta igandean, eguerdian zehar. Taberna eta jatetxeetako pintxoak dastatzen joan ahala,



Pintxo Ibilbidearen IV. edizioa izango da aurtengoa. Asteburu honetan egingo da.

bezeroei zigilu bana jarriko zaie esku-orri batean. Ibilbide osoa burutzen dutenak zozketa batean sartuko dira. Saridunak Logroñon asteburu-pasa bat irabaziko du, upeltegi batera bisita bame. Joan

den ostiraleko aurkezpenean pintxoak "oso landuak" direla nabarmendu zuen Aterpeko Lehendakari Ramon Ormazabalek, eta ibilbidean parte hartzeko gonbita luzatu.

## GURE ESKU DAGO

Errifen zozketako zenbaki sarituak

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago ekimenak, sari ezberdinak eskuratzeko errifa batzuk jarri zituen salgai. Horiek erosi zituzten herritarrak, sari ezberdinen zozketan parte hartu dute, eta Gure Esku Dago eman dituzte zozketako zenbaki sarituak.

Horien artean, 4.657 zenbakiaren jabeak, jaso du lehenengo saria; Sevilleako bidaia. Bi lagunentzako, bost eguneko egonaldia izango da eta bidaia hori, Noaia bidai-agentziaren eskutik antolatuko da.

Bigarren saria berriz, bi zenbaki ezberdinek eskuratu dute; 3.639 zenbakiak batetik eta 3.348ak bestetik. Horiek biek, bakoitzak bi pertsonentzako globo aerostatiko batean bidaiatzeko saria lortu dute, Soka etxeari esker. Saritutako bi zenbaki horien jabeek, datorren larunbatean, azaroaren 26an izango dute globoan, herriko zerutik bidaia egiteko aukera. Gure Esku Dago ekimenak jakitera eman duenez, egun horretan eguraldi txarra izango balitz, egun bat atzeratuko litzateke globo-bidaia hori, hau da, azaroaren 27an, igandean egingo litzateke.

Horrez gain, datorren larunbatean, 2017. urtean egin asmoz duten herri galdeketa egiteko eguna noiz izango den ere aurkeztuko dute jendarean, ekimeneko sustatzaileek. Ekitaldi hau, herriko Okendo plazan izango da eta ekintza ezberdinak egingo dira egun horretan. Zozketarako egindako errifen dirua, datorren urtean, Lasarte-Orian egingo den galdeketa horretarako erabiliko dutela jakinarazi dute.

# Reggae musikaz gozatzeko jaialdia

'Reggae Fever Fest' jaialdiarekin reggae zaletuz beteko da Lasarte-Oria larunbatean

Bigarren urtez, Lasarte-Oria 'Reggae Fever Fest' antolatuko da. Reggae musikaren zaletuek hitzordua dute hurrengo larunbatean, arratsalde eta gauean, Insausti taberna eta Elebeltz Topagunean.

## TXINTXARRI

az lehenengoz 'Reggae Fever Fest' jaialdia ospatu zen gure herrian. "Giro paregabea egon zen, taldeek egundoko maila erakutsi zuten eta selektoreek ere lan bikaina egin zuten. Balorazio oso positiboa egin zuen hurbildu zen guztiak, kristoren festa izan zela esan zuten denek eta horrek guztiak bigarren edizioan pentsatzen jartzeko ilusioa piztu zidan", azaldu digu Eneko Alkorta antolatzaileak.

## Helburua

Jaialdiak bi helburu ditu: azaldu digu.

Batetik 'Reggae Fever' irratsaioa ezagutzera ematea eta bestetik reggae musika jendeari helaraztea da, "gaur egun Euskal Herrian entzuten eta egiten den sasi-ska musikak pena dexente ematen du eta irratsaioak sustraierara joateko aukera ematen du".

## Jaialdia

'Reggae Fever' irratsaioa lagunek aurreko urteko eskema errepikatuko dute. Lehenik erdigunean dj saioez gozatu ahalko da eta ostean, ordu txikiak arte, Elebeltz Topagunean taldeak eta djak izango dira.

Jaialdian reggae doinu klasikoak dira nagusi, "Reggae kontzeptua oso zabala da baina guk Reggae originalean eta bere aurretikoak diren Ska eta Rocksteady maite ditugu. Hori oinarri hartuta aukeratu ditugu taldeak eta musika jartzaileak".

"Ez gara agian asko jamaikar doinu klasikoaren maitaleak garenak baina publiko fidela garela aitortu behar dut," gaineratu du.

Era honetara, arratsaldeko 18:00etan hasiko da festa Insausti Tabernan.

Bertan, Marcos Carnaby eta Runto Selektorra djen pintxada izango da.

Amaitzean, jaia Elebeltz Topagunera lekuz aldatuko da



Lehenengo 'Reggae Fever Fest' jaialdiko kontzertuetako irudia eta aurtengo edizioko kartela.

eta 'Skabidean' eta 'Euskatalites' taldeez gozatu ahalko da.

Enekoren hitzetan, "Iruñetik 'Skabidean' datoz, talde gaztea baina ska zaharraren bidea jarraitu nahi dutenak eta kontzertu asko jotzen ari direnak azkenaldian. Gaueko "izarrak" berriz Bilbotik datoz eta 'Euskatalites' deitzen dira. Akatz talde mitikoaren alter egoa ditugu. Esperientzia handiko musikariak dira eta 'The Skatalites' talde jamaikarraren bertsioak eta Akatzen abestiak tartekatuko dituzte".

Jarraian, Artwood 69 eta Sir

Gorka-ren saioek dantzan jarriko dute topagunea.

Kontzertuetako sarrera 8 eurokoa da. Sarrerak sartu baino lehen erosi beharko dituzte zaleek Elebeltzen bertan.

## Zaragozatik Lasarte-Oriara

'Reggae Fever Fest'-eko antolatzaileak aipatu digunez, Gipuzkoa edo Euskal Herriko txoko ezberdinetatik jendea etorriko da, Gernika, Iruñea, Gasteiz eta Bilbotik, besteak beste.

Bitxikeria modura, Zaragozatik furgoneta edo minibusa bete nahian

dabilzala ere azpimarratu du Enekok. Herritarrei ere gonbita egiten die jaialdian hurbiltzera.

## 'Reggae Fever' irratsaioa

'Reggae Fever' programak 70. hamarkadako Jamaikako Reggae doinu klasikoak lantzen ditu. Zangozatik astero egiten da irratsaioa eta Info7 irradian ostegunero 23:00etan igortzen da; igandeetan errepikatzen dute gero, 12:00etan.

'Reggae Fever'-en edukiez gozatzeko, Donostialdeko entzuleek 99.2 frekuentzia sintonizatu behar dute.

## Solaskide programa martxan da

Solaskide programak ikasturteari hasiera eman dio modu ofizialean. Talde ezberdinak martxan dira dagoeneko. Asteroko hitzorduez gain, hainbat ekintza egiten dira ikasturtean zehar guztien arteko harremanak sendotzeko. Horieta bat izan ohi da ikasturte hasierako afaria.

Horrela izanda, Arrieskalletan elkartu ziren ostegunean lagun artean, gogotsu ikasturte berriari ekiteko. Bertan izan ziren Ttakuneko lehendakari, kudeatzaile eta koordinatzailea, herriko elkarteak da eta, egitasmo honen kudeatzailea.

## Menu berezia

Euskararen 9. Maratoian eta 40 egunetako erronkan oinarritutako, ganba eta porruz beteriko armairu itxurako hojaldrea izan zuten lehenik menuan. Bigarren plater bezala, mingaina eta

belarriak saltsan izan zituzten mahai kideek.

Eta amaitzeko sukaldariak pastel dastaketa prestatu zuten.

## Solaskide

Solaskide taldeak dagoeneko martxan dira.

Buelta bat ematen, kirola eginez edo kafe baten inguruan euskaldun zahar eta berriak euskaraz mintzatzen dira.

Egun 23 talde daude, batzuk binaka, besteak hiru edo taldeka ere biltzen dira.

Naiara Mugika Solaskide programaren koordinatzailearen hitzetan, "oraindik ez daude talde guztiak itxita eta azken asteetan izena ematera gerturatzen ari diren herritar kopurua ikusita, laguntza ere eskatu behar dugu".

Euskaldun berrien eskaerari erantzun egokia eman ahal izateko, euskaldun zaharrak



Solaskideek ederki pasa zuten ikasturte hasierako afari berezian.

behar direla adierazi du Mugikak. "Euskaraz mintzatu eta praktikatzeko aukera ematen duten lagunartek dira, astean behin, ordu betez, solasaldi atsegin eta aberasgarri bat mantetzeko".

Programaren parte izan nahi duten herritarrek aste honetan dute izena emateko aukera. Hala ere, ikasturte osoan zehar aukera dago ere bat egiteko "jendea taldeetan txertatzen joaten da eskariaren arabera euskaldun berriek aukera gal ez dezaten".





# Irten armairutik!



## Txulalari ederra

5. txandako Ahobiziek haien txapa jaso zuten ostiralean. Zortzikoteko kideen artean Rebeka Garzesek Mikel Izquierdoren eskuetatik hartu zuen testigua eta animo hitz batzuk eman zizkion. Aurretik, gorputza mugitzeko aukera izan zuten Txulalari dantzatzu.

## Ahobizien 5. txanda martxan



**Miren eta Manoli Zumeta**  
Laugarren txandako Ahobiziak



**Josu Izagirre**  
Bosgarren txandako Ahobizia



**Zer moduzko esperientzia izan da Ahobizi izatea?**  
Oso esperientzia ona izan da. Uste baino hobeto joan da astea.

Euskaraz hitz egin dugu, baita erdaldunekin ere. Haiek ulertu eta buruarekin erantzuten ziguten bai edo ez esanaz.

Uste baino jende gehiagok daki euskaraz, baina ez da ausartzen hitz egitera. Harritu egin gara zentzu horretan eta pozik gaude.

**Manoli:** Nik uste nuen euskaraz ez zekitela ezer, baina hasi dira. Hau ibiltzen hasten zarenean bezala da, oinez hasi eta berotzen zoazen hobeto joaten zarela.

**Miren:** Oso gustura sentitu naiz euskaraz hitz egiten. Lagunekin ere euskaraz egin dugu eta nahiko ondo moldatu gara.


**Kanpoko izanik, nolatan 40 eguneko erronkan parte hartzen?**

Erreterian bizi naiz, baina urte pila dira, Lasarte-Oriako Udal Musika eskolan lanean ari naizela. Erronkaren berri izan nuen eta izena ematera animatu nintzen. Euskararen aldeko ekintzetan parte hartzea gustatzen zait.

**Erronka aurrera eramateko arazorik izango al duzu?**

Ez dut uste arazorik izango dudarik. Orokorrean euskaraz egiten dut. Euskaraz hitz egiten ez diegan pertsonak ere baditut noski eta aste honetan, haiekin behintzat ohitura aldatzen saiatuko naiz. Pertsona konkretuak izango dira, hala nola, lankide batzuek. Hala ere, aste honen barruan, ezustekoak izango ditudala uste dut.

**Informazioa:** Udaleko Euskara-Zerbitzua (943 37 61 84)



ORAIN EKONOMIA

**Ekonomia Suspertzeko Plana**

Gure lurraldeko **ekonomia, enplegua eta ongizatea** indartzeko.

**200M€**  
2015 > 2019

**Industria**

**Lehen Sektorea**

**Gizarteratzea**

**Kultura eta Turismoa**



## FUTBOLA.-

## Sei gol sartuta garaipena herriko neskentzat

Beti Gazte K.J.K.E taldea izan zuen Ostadar SKTek aurkari larunbateko norgehiagokan

**Erraz eskuratu zuen garaipena erregional mailako Ostadar SKT emakumezkoen taldeak Beti Gazte K.J.K.E taldearen aurka, larunbatean jokaturako partiduan. Jokoan nagusi izan ziren etxeko neskek eta 6 eta 1-eko emaitzarekin pozik amaitu zuten asteburu honetako norgehiagoka.**

## MADDI NORIEGA

**A**ise irabazita, pozik amaitu zuten Ostadar SKTko erregional mailako neskek larunbatean, etxean jokaturako partidua. Beti Gazte K.J.K.E taldea izan zuten aurkari etxekoek eta joko ona eginda, sei eta bateko garaipena erdietsi zuten herriko neskek.

Arratsaldeko bostak eta laurdenetan eman zitzaion hasiera partiduari eta joko hasi eta lehen minutu eta erdian, Saio Perezek gola sartuta, markagailuan aurretik jarri zen etxeko taldea. Gauzak horrela, baloia atzetik jokatzeko hasi zen Ostadar SKT. Alde batetik bestera mugitu zuten baloia eta zentralen bizkarra bilatuaz, min asko eman zien talde aurkariari.

Jokoa ondo defendatu bazuten ere, lehen zatia bosgarren minutuan, etxeko taldeak penaltia egin eta talde nafarrak markagailuan berdinketa eskuratu zuen.

Baina ez zuten amore eman urdin-beltzek. Beti

Gazte K.J.K.E mendean hartuta, nagusi izan ziren lehen berrogeita bost minutuetan eta berriz ere, Saio Perezek sartutako beste bi gol eta Nahia Mendiablen gol bati esker, markagailuan 4 eta 1 aurretik amaitu zen lehen zatia.

Atsedendiko tartea baino lehen, Beti Gazte K.J.K.Eko jokalariek batek hankan min hartu eta partidua denbora luzez gelditu egon bazen ere, etxeko neskek jokoan ondo aritu ziren.

Deskantsuko tartean ostean, bigarren zatian, estrategia berdina mantendu zuten herriko neskek. Jokoaren nagusitasunari eutsiz eta taldearen azkartasunaz baliatuz, joko ona egin zuen Ostadar SKT, eta horri esker, beste bi gol sartu zituen Cristina Revillok. 6 eta 1eko puntu aldearekin amaitu zen partidua.

Guztira, bederatzita norgehiagoka jokatu dituzte erregional mailako Ostadar SKT emakumezkoen taldeak eta hiru garaipen lortu dituzte horietatik. Itzuliko partidua jokatzeko hasiko dira orain.



Jokoan nagusi izan ziren herriko neskek larunbatean, etxean jokaturako norgehiagokan.

## 25 fitxak beteta

Azken urteetan arazoak izan dituzte behar adina jokalariek elkartzeko, baina denboraldi honetan arazuko 25 fitxak betetzea lortu du taldeak.

Astean hirutan entrenatzen dute, Michelingo zelaian. Astelehen, asteazken eta ostiraletan elkartzen dira lan-saioak egiteko, 20:30etik 22:00etara bitartean. Entrenatzaileak Julen Ormazabal eta Iker Artetxe dira; hiru denboraldi daramatzate herritarrek taldea entrenatzen.

## Aukera baino gol gutxiago

Ormazabalek zehazten duenez, orain arte jokaturako partiduetan hainbat aukera sortu ditu taldeak, baina horiek gol bihurtzeko zailtasunak izan ditu, "azkeneko neurketetan" batez ere: "Joko aldetik maila ona ematen ari gara, baina golak sartzea kostatzen zaigu", aipatzen du entrenatzaileak.

Ostadarren helburua da Euskal Ligara igotzeko sailkapen faserako sailkatzea. Horretarako, multzoko lehen hiru sailkatuen artean egon

beharko luke Ostadarrek. Iaz halaxe egin zuten, fase erregular bikaina egin eta guztira 17 puntu poltsikoratuta.

Igoera fasean ere primeran aritu ziren urdin-beltzak. Hamar taldek osatutako multzoan lehiatu ziren, eta laugarren postua eskuratu, 31 punturekin. Hamar partidu irabazi, bakarria berdindu eta zazpi galdu zituzten herritarrek. 34 gol sartu (partiduko ia bi) eta 25 jaso zituzten.

Aurten ere fase horretarako sailkatzeko ari dira lehian.

## ARRAUNA.-

## Donostiarran ariko da Intza Fernandez

**I**ntza Fernandez herritarrek Donostiarra taldean egingo du arraun aurtengo denboraldian. Orain arte Getaria-Zarautzen ibili da, baina kostako taldeak ez du trainerurik aterako aurten, zenbait arraunlarik uztea erabaki dutelako, eta bilera bat egin ostean, aurten trainerua ateratzeko nahikoa arraunlari ez zeuzkatelako.

Gauzak horrela, arraunean segitzeko asmoa duten kirolariek (Intza tartean) beste talde batzuk bilatu behar izan dituzte. Herritarra, esan bezala, Donostiarran ariko da.

Talde horrek aurten aterako du estreinakoz emakumeen trainerua. Gazteak dira arraunlari denak, eta, Intzak kontatu digunez, bera izango da beterranoena (20 urte ditu herritarrek): "Hasiberri asko daude, ni naiz esperientzia gehien daukana; asko balora-



Getaria-Zarautzek ez du emakumezkoen trainerua aterako aurten.

tzen naute taldean, ea zer nolako maila ematen dugun denboraldian zehar".

Dagoeneko hasi da talde berriarekin entrenatzen; oso gustura dabilela nabarmendu du Fernandezek.

Duela bost urte hasi zen herritarra arraunean, Zarautz taldean, kadete mailan. Geta-

riarekin duela bi urte batu ziren, eta emaitza aipagarri batzuk lortu ere bai. Iazko Kontxako Banderan, esaterako, bosgarren postua erdietsi zuten; are, lehen asteburuan ohorezko tandara sailkatzea lortu zuten. Intzak lehenengoan ez, baina bigarren asteburuan egin zuen arraun.

## HERRI KIROLAK.-

## Urtzi Telleria eta Josetxo Urrutiaren arteko apustua abenduaren 3an, Asteasuko frontoian

Gerturatzten ari da Urtzi Telleria eta Josetxo Urrutiaren arteko apustua jokatu den eguna: abenduaren 3a. Asteasuko frontoian ariko dira, 18:30etatik aurrera. Sarrerek 30 euro balioko dute (16 urtez azpikoek, doan). Harrijasotzaile bakoitzak bere pisuaren bikoitza jaso beharko du sei minutuko hiru txandatan; errektangularrak eta berunik gabekoak izan behar dute herriak. Bakoitzak altxatu beharreko kilo kopurua apustuaren egunean bertan erabakiko da, harrijasotzaileak pisatuz.

Jokoan 6.000 euro izango dituzte Telleriak eta Urrutiak (bakoitzak 3.000). Dagoeneko 4.000 jarriak dituzte bien artean, eta abenduaren 1ean elkartuko dira azkeneko 6.000 euroko kopurura iristeko. Gogor ari dira entrenatzen bi kirolariak.



Urtzi Telleriak (ezkerrean) eta Josetxo Urrutiak 6.000 euro dituzte jokoan.

## Agenda

Asteazkena, 18:00etan, Landaberri BHI



### Errausketa, osasuna eta adostasuna

GuraSOS elkarteak 'Lasarte-Oria +: Osasuna eta adostasuna' mahai-ingurua antolatu du. Iñigo Suberbiola OEITko kideak sarreratxo bat egin eta Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako irakasleak, Maite Labiano sendagilea, Domi Insausti erizain ohia eta Juan Luis Murua Lasarte-Oriako parrokoa izango dira gaiari buruz hizketan.

atalean, 'Neruda' filma ikusi eta aztertuko da. Sarrera, 5,50 euro.

**Larunbata 26, 17:00etan eta 19:30ean**  
'Un monstruo viene a verme' filmaren saio bikoitza eskainiko da haur eta helduen saioetan. Sarrera, haurren saioa, 3,80 euro eta helduen saioa, 5,50 euro.

**Igandea 27, 17:00etan eta 19:30ean**  
'Un monstruo viene a verme' filmaren saio bikoitza eskainiko da haur eta helduen saioetan. Sarrera, haurren saioa, 3,80 euro eta helduen saioa, 5,50 euro.

### Sari banaketa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 26, 12:00etan

Lasarte-Oriako Haur eta Helduen Literatura lehiaketetako sari banaketa egingo da.

### Lasarte-Oria

#### Genero indarkeriaren aurkako astea

ATSOBAKAR ZAHARREN EGOITZA

Gaur, astelehena

Emakumeen Zentroko kideek ipuin-kontalari saioa egingo dute bertako egoiliar eta familiei zuzendua.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea, 19:00etan

'Él nunca me pegó' dokumentala ikusi eta Irantzu Valera Faktoria Lilako kideak hitzaldia eskainiko du.

Asteazkena, 19:00etan

Beldur Barik lehiaketako sariak banatuko dira.

Osteguna, 18:00etan

KontuKantoiko kideek 6-8 urteko haurrei zuzendutakoa ipuin saioa eskainiko dute.

OKENDO PLAZA

Ostirala 25, 11:00etan

Ibilaldi osasuntsua egingo da.

Ostirala 25, 12:00etan

Genero indarkeriaren aurkako egunean, elkarretaratzea izango da.

### Santa Zezilia

LASARTE-ORIAKO KALEAK

Asteazkena, 18:30ean

Udal Musika eskolak kalejira egingo du herriko erdiguneko kaleak girotuz.

### Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna, 19:00etan

Anselmo Lorenzo elkarteak 'Memoria Viva' dokumentala erakutsi eta hitzaldia eskainiko du.

### Ttakun 25. urteurrena

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Aste honetan zehar

Ttakun Kultur elkarteko ibilbidea jasotzen duen erakusketa izango da ikusgai.

### Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 25, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen zine forum

### II. Reggae Fever Fest

INSAUSTI TABERNA

Larunbata 26, 18:00etan

Marcos Carnaby eta Runto Selektorra djen pintxada.

ELEBETZ TOPAGUNEA

Larunbata 26, 23:00etatik aurrera

'Skabidean' eta 'Euskatalites' taldeen kontzertuaz gozatu ahalko da. Ondoren, Artwood 69 eta Sir Gorka djen saioa. Sarrera, 8 euro.

### Plaza dantza

OKENDO PLAZA

Igandea 27, 12:00etan

Hilero bezala, muxikoekin eta plaza dantzekin gorputza astintzeko aukera izango da.

## Herritarren txokoa

### Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, azaroaren 28an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

### Aterpeko zenbaki saritua

Aterpea Merkatarien elkarteak antolatutako 'Bezeroaren Hamabostaldia' kanpainan zozketatzen ziren 300 euroak 08761 zenbakiko txartelak eskuratu ditu, hau baita urriaren 31eko ONCEko zozketako zenbaki saritua.

Onuraduna jar dadila harremanetan Aterpea Merkatarien elkarteko kideekin bazkide den edozein dendara hurbilduz.

### Eskutitza

"Aurtengo Erregeen kabalgata antolatzeko laguntza behar dugu"

MEGABAK urtero-urtero Lasarte-Oriako Kabalgata antolatzeko orduan dituen arazoak jakinarazi nahi ditugu.

Duela 6 urte, MEGABAK Danok Kideren eskutik jaso zuenetik kabalgata antolatzeko ardura, lanetan aritzeko behar den boluntarioen kopurua jaitsi egin da.

Gaurkoz Lasarte-Oriako kabalgata antolatzeko elkarteak, MEGABA, osatzen dugunok gutxi gara. Adin guztietako pertsonak gara, urtero-urtero ilusio handiz urtarilaren 5ean kabalgata antolatuta egon dadin lan egiten dugunak; 100 bat pertsona mobilizatzen ditugu, dozena erdi elkarerekin harremanetan jartzen garelarik komitiban parte hartzeko. Urtero-urtero berrikuntzak sustatu nahian egiten dugu lan, baina elkartearen errealitateak ez digu laguntzen eta gero eta gutxiago gara ekitaldi garrantzitsu hau sustatzeko mugitzen garenok.

2017ra begira kabalgata antolatzeko tramiteak sinplifikatzeko modua lantzen ari gara. Adibidez,

suzi-eramaileei arropa ematea eta jasotzea ere konplikatu egiten zaigu, MEGABA elkarteko gutako bakoitzak badauzka beste eginkizun batzuk eta, pertsonalak zein profesionalak. Horiek horrela, beldur gara Lasarte-Oriako kabalgata ez ote den bertan behera geldituko; antolatzaileak boluntarioak izan beharrean profesionalen bila ez ote garen hasi beharko edota okerrago dena, ez ote dugun kabalgata galduko.

Aurreko urteetako ilusio berarekin jarraituko dugu, laguntzaileak aurkitzen komertzioetan eta elkarteetan Lasarte-Oriako umeez Meltxor, Gaspar eta Baltasarri gutunak entregatzen jarraitzeko aukera izan dezaten. Baina ezinbestean MEGABAREN etorkizunean pentsatu beharra daukagu, pizgarri berria behar dugu. 2017rako ahalik eta hoberen ari bagara ere lanean, MEGABAREKIN lan egin nahi duten pertsonen eskatzen diegu gurekin harremanetan jartzeko posta elektronikoen bitartez, [info@megaba.es](mailto:info@megaba.es) edo gure telefonora hots

eginez, 649 513 102, eta atseginez emango diegu behar duten informazio guztia eta hurrengo bilera-eguna.

MEGABA elkarteak

**Zuen oharrak jarri, keak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48  
[txintzarri@txintzarri.eus](mailto:txintzarri@txintzarri.eus)

# Taula gainean

Bi antzerki obra ikus ahal izan ziren asteburuan, kultur etxean Lasarte-Oriako Udaleko Kultura eta Hezkuntza sailak azarorako antolaturiko kultura agendaren baitan, bi antzerki izan dira ikusgai asteburuan, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Ostiral gauean, 'Ondoko hilobiko tipoa' eskaini zuten eta 'Tomaxen abenturak' aldiz, larunbat arratsaldean.

## TXINTXARRI

**A**ntzerki erakargarriak izan dira asteburuan. Lasarte-Oriako Udaleko Kultura eta Hezkuntza sailak azarorako antolaturiko kultura agendaren baitan, bi antzerki izan dituzte herritarrek eta umorea izan da nagusi kultur etxeko aretoan, ostiralean eta larunbatean.

Ostiral gauean, helduei zuzendutako 'Ondoko hilobiko tipoa' antzezlanak eskaini zuten Aitziber Garmendia, Aiorak eta Iker Galartza, Pablok.

Maitasun istorio bat taularatu zuten aktore euskaldunek. Leku berezi batean egin zuten topo Aiorak eta Pablok; hilerri batean.

Errepideko istripu batean hildako senarra bisitatza

joaten da Aiora kanposantura, eta hil berri zitzaion ama bisitatza berriz Pablo.

Ez dute 'feeling' onik lortzen antzezlanaren hasieran bi protagonistek, baina obrak aurrera egin ahala, bien arteko ezberdintasunak medio, maitasun istorio bilakatu zen harremana.

### Haurrentzako antzerkia

Haurrek aldiz, Tomax eta Muxugorriekin batera, hondartzan ibiltzeko tartea izan zuten larunbatean. Itsasoa, bertako animalia eta izaki-bizidunak gertuagotik ezagutzeko aukera izan zuten etxeko txikiek. Horrekin batera, dantzan ere aritu ziren haur eta gurasoak; Eva Mirentxu abesti ezaguna dantzatuaz eman zioten hasiera antzezlanari.



'Ondoko hilobiko tipoa' antzezlanak ikusi ahal izan zen ostiral gauean, Manuel Lekuona Kultur Etxean.



Larunbat arratsaldean, etxeko txikienei zuzendutako 'Tomaxen abenturak' antzerki obra eskaini zuten.

# BLACK FRIDAY

*Bila ezazu Lasarte-Oriako komertzioetan!*

## AZAROAK 25, BEHERAPENAK %

